



Arartekoaren 2019R-2448-18 Ebazpena, 2019ko uztailaren 11koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio, berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko ebazpena, babesgabetasun egoera sortu baitu horretarako oinarri gisa balio izan duen polizia-txostenaren kopia alde aurretik ez ematean eta, beraz, kexagilearen babeserako eskubidea ez bermatzean.

### Aurrekariak

1. Herritar batek kexa aurkeztu du erakunde honetan, eta hori egiteko arrazoia da ez dagoela ados guraso bakarreko bere bizikidetz-unitateak (kexagileak eta alaba adingabeak osatzen dute) aitortuta zituen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi izanarekin.

Prestazio horien iraungitzea adierazten zuen ebazpena eman aurretik, Lanbidek entzunaldi-izapide bat jakinarazi zion 2018ko irailaren 18an. Jakinarazpen horretan iraungitzeko arrazoi bat egon zitekeela aurreratzen zen, eta bi prestazioak bidegabe jaso izanagatik zenbatekoak itzultzeko eskatzen zen prestazioaren titularrak egindako iruzurrezko jardunagatik, honek eraginda:

*"Ocultación de datos de la composición de la UC. Art 12.1.f.1 del decreto 147/201 de 25 de mayo. Según informes de convivencia de diferentes entidades de Amorebieta - Etxano, usted convive con (...). Persona con la que ha convivido en AMOREBIETA en la C/ XXX teóricamente como subarrendataria de habitación. Con posterioridad Vd. ha trasladado su domicilio a (...) donde continúa conviviendo con (...), aunque él no figura empadronado en dicho domicilio.*

*Cumplir las obligaciones derivadas de su condición de titular de la Renta de Garantía de Ingresos, en la modalidad que corresponda, así como cualesquiera otras que resulten de aplicación en virtud de la normativa vigente.*

*Actuación Fraudulenta: ocultando la relación de pareja análoga a la conyugal con (...) conviviendo con dicho sr. desde el 05/10/2015 evitando declarar los ingresos por trabajo de su pareja para acceder a la prestación de RGI.*

*No existir relación de parentesco hasta el tercer grado por consanguinidad o afinidad entre cualquiera de las personas miembros que constituyen la unidad convivencial de la persona solicitante y la persona arrendadora de la vivienda o cualquiera de las personas miembros de su unidad familiar. Ocultando la relación de pareja análoga a la conyugal con (...), conviviendo con dicho sr. desde el 05/10/2015 y simular el pago de alquiler de habitación para acceder a las ayudas por PCV."*





Kexagileak bere desadostasuna erakutsi zuen 2018ko urriaren 3an **alegazioen** idazki baten bidez. Idazki horretan, kexagileak argudiatu zuenez, (...) pertsonarekin zuen harremana 2016ko urritik 2017ko uztailera arteko epealdira mugatzen da, hau da, BBB titular den etxebizitzako gela baten errentari izan zenean. Kexagileak, alegazioen epean nahiz aukerako berraztertze errekurtsoarekin batera hainbat dokumentu aurkeztu zituen, besteak beste:

- Bien zinpeko deklarazioa, eta bertan jasotzen zen ez zutela ezkontzaren edo antzeko harremanik.
- Azpierrentamendu kontratua kexagilearen eta alabaren izenean, bai eta zinpeko deklarazioa ere, baieztapen horiek frogatzeko.
- Bankuko kontu-laburpena eta gela azpierrentan hartutako errentaren hileroko ordainagiriak (400 euro), errentatzaileari eskura ordaindutakoak.

Kexagileak adierazi zuen berriz, azpierrentamenduko azken kontratua amaitzean, bera eta alaba gazteena beste etxebizitza batera joan zirela bizitzera, eta bertan bizi direla bakarrik gaur egun.

Prestazioak iraungitzeko ebazpena justifikatzen zuten bizikidetzako txostenen kopia eskatu zuen ere.

2. Alegazio horiek ez ziren baietsi eta iraungitzeko Lanbidek emandako ebazpena, 2018ko urriaren 25ekoa, honek eragin zuen:

*"Existir relación de parentesco entre miembro/s de la unidad de convivencia y la persona arrendadora y/o cualquiera de los miembros de su unidad familiar. **Ocultando la relación de pareja análoga a la conyugal con BBB, conviviendo con dicho sr. desde el 05/10/2015 y simular el pago de alquiler de habitación para acceder a las ayudas por PCV**".*

Diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubide subjektiboa (bizikidetzaren unitateari aitortutakoa) iraungitzeko ebazpen horrekin batera, ez zen aurkeztu Lanbidek iraungitzeko arrazoi gisa aipatutako erakundeen bizikidetzaren txostenen kopia.

Iraungitzeari erantzunez, kexagileak aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen eta alegazio fasean adierazitako argudioak errepikatu, honako hau adieraziz, funtsean: bizikidetzaren unitatea prozeduraren aurreko uneetan adierazitakoa zela, hau da, berak eta alaba adingabeak osatzen zutela bakarrik, ez zuela iruzurrezko jarduerarik egin eta errentatzailearekin ez zuela ezkontzaren edo antzeko harremanik.





Halaber, eskatu zuen prestazioa iraungitzeko justifikazio gisa balio izan zuen txostenaren edukia eskuratzea eta haren kopia izatea; ez zuen, baina, halakorik erdietsi.

Lanbidek, txosten horien kopia aurkeztu gabe, 2019ko apirilaren 8ko ebazpenaren bidez, prestazioak iraungitzearen aurka jarritako aukerako berraztertze errekurtsoa ezestea ebatzi zuen.

3. Kexa izapidetzeko onartu ondoren, Arartekoak informazioa eskatu zion Lanbideri. Horren bidez, erreklamazioaren xedeari lotutako inguruabarren gaineko informazioa eskatu zuen eta aurretiazko gogoetak helarazi ziren, aurrerago errepikatuko direnak.
4. Lanbidek kontu horiei erakunde autonomoaren zuzendari nagusiak egindako txostenaren bidez erantzun zion. Zehazki:

*"- Kexaren edukia aztertuz, Zornotzako Udalak jakinarazi zion Lanbideri askotariko informazioak zituela zentzu honetan: "AAA andrea alabarekin eta bikotekidearekin, BBB jaunarekin, bizi da, DSBE eta EPO kobratuz. Izan ere, adierazi du ez direla bikotea, eta berak errentako kontratu bat eman diola, aipatu laguntzak kobratzeko. Udalerrian publikoa eta bistakoa da harreman hori, interesdunek hori jakinarazten baitute. Horrez gainera, AAA andreak egindako bidegabeko kobratzei buruz ere hitz egiten dute."*

*- 2018/01/16an Lanbideak Durangoko Ertzaintzako komisario-etxeari eskatu zion bikote-harreman hori egiaztatzeko. Ondoren, bizikidetza-txostena igorri zuten, non harreman hori egiaztatzen zen.*

*- 2018ko urriaren 25ean, 2018/REV/092045 zenbakidun berraztertze-prozeduraren baitan, egintza bat eman zen, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren prestaziorako eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren eskubidea azkentzen zuena.*

*- Ebazpen horri aurre egiteko, interesdunak berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen, baina 2019ko apirilaren 8ko ebazpenaren bidez ukatua izan zen. Errekurrutako ebazpena berretsi zuen osorik, jatorrizko ebazpenean egiaztatutako betebeharrak eta betekizunak ez zirela bete egiaztatutzat jotzen baitziren".*

Txosten hori jasotzean, haren funtsezko elementuak Arartekoak kexagilearekin partekatu zituen baloratzeko; izan ere, jakinarazi zitzaion iraungitze ebazpenean emandakoa baino informazio gehiago zutela.



Aztertu ondoren, kexagileak berriz adierazi zuen ez zegoela ados eta pertsona horrekin ez zuela ezkontzaren edo antzeko harremanik, halakorik zenik ezin zela frogatu, eta ez zuela egin diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko iruzurrezko jardunik, eskatutako betekizun eta betebeharrak urratu gabe.

5. Erakunde honek jakin du 2019ko ekainaren erdialdera, kexagileari eman zitzaiola prestazioak iraungitzeko ebazpenean nahiz Lanbidek Arartekoari igorritako lankidetzaren hitzarmenean aipatutako bizikidetzaren txosten baten kopia, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak egin zuena. Txosten horrek honako hau dio, hitzez hitz (lekuko ezabatuen datu pertsonalekin):

*"- El día 28 de agosto de 2018, a las 13:00h, el recurso compuesto por los agentes de la Ertzaintza con número profesional XXXX se personaron en el domicilio situado en la calle XXXX de la localidad de Amorebieta, donde no contesta nadie. Preguntado XXX (aparece el nombre tachado), **éste les informa de que en el 3º izquierda residen tres personas, un hombre, una mujer y una niña.***

*- El día 29 de agosto de 2018, a las 08:47h, el recurso compuesto por los agentes de la Ertzaintza con número profesional XXXX se personan en la dirección indicada, siendo atendidas por AAA, la cual manifiesta residir solo con su hija."*

Jaso ondoren, kexagileak dio bere eskaierako bizilagun guztiekin harremanetan jarri zela (haiekin harremanik ez du ia) txosten horretan jasotako iritzieren pertsonak identifikatu arte. Pertsona horiek kexagileari entzun eta gero adierazi zuten aurrez egindako adierazpena zuzentzeko zinpeko deklarazioak aurkezteko prest zeudela; izan ere, esan zuten, alde batetik, ez zutela harreman handirik, bestetik, haren etxean benetan zenbat lagun bizi ziren ez zekitela seguru eta, azkenik, ez zekitela aurrez egindako adierazpenaren benetako eragina zenbaterainokoa zen.

Hortaz, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin ditugu:

### Gogoetak

1. Lanbidek uste du bizikidetzaren unitatea zehaztu ezinak diru-sarrerak bermatzeko errenta izapidetzeko ezinbesteko betekizun bat bete gabe uzten duela, honi lotuta, hain zuzen: ezin dela zehaztu kexagilearen bizikidetzaren unitatea Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari Buruzko Dekretuak (maiatzaren 25eko 147/2010) 5. artikulua zehazten duenaren sartzaren den.



Ildo horretan, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen arrazoen azalpenak bizikidetzaren unitatea erdiguneko elementutzat jotzen du diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidearen osakeran. Legea beraren hasieratik, dagoeneko, ezartzen da bizikidetzaren unitatea zehaztea dela: *"...ereduaren oinarritzako osagaietako bat da, horren definizioa erabakigarria baita prestazio bakoitzak eskainiko duen babesmailarekin"*. Horrekin bat etorritik, lege beraren 9.4 artikulua honako hau ezartzen du: *"Lege honen ondorioetarako, artikulua honetan aipatzen diren bizikidetzaren egiazkoa edo bizikidetzaren eza aztergai izan behar dituzte administrazio eskudunak, kasuaren arabera beharrezkoa denean"*.

Araudiaren esparru horretan, Lanbidek uste du hizpide dugun kasu honetan, ezin izan dela kexagilearen bizikidetzaren unitatea zehaztu, erakunde publikoaren arabera, ez baitu osatzen kexagileak aipatzen duen bizikidetzaren unitatea, eta egiaz, ezkontzaren edo antzeko harreman bat du gela azpierrean ematen zion etxebizitzako jabearekin. Horrek eragin du diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzen dituen Lanbideren ebazpena:

*"-Existir relación de parentesco entre miembro/s de la unidad de convivencia y la persona arrendadora y/o cualquiera de los miembros de su unidad familiar. Ocultando la relación de pareja análoga a la conyugal con BBB., conviviendo con dicho sr. desde el 05/10/2015 y simular el pago de alquiler de habitación para acceder a las ayudas por PCV"*.

Hori guztia, prozedura hasteko jakinarazpenaren arabera, *"...Amorebieta-Etxanoko hainbat txostenetan oinarrituz"*, eta txosten horiek guztiak ez zaizkio kexagileari eman, nahiz eta hori egiteko eskatu behin eta berriro.

Nolanahi ere, Arartekoak egindako informazio eskaerari erantzunez Lanbidek igorritako lankidetzaren txostenetan, honako hau aipatzen zen:

*"Kexaren edukia aztertuz, Zornotzako Udalak jakinarazi zion Lanbideri askotariko informazioak zituela..."*

*"...Udalerrian publikoa eta bistakoa da harreman hori..."*

*"2018/01/16an Lanbideak Durangoko Ertzaintzako komisario-etxeari eskatu zion bikote-harreman hori egiaztatzeke. Ondoren, bizikidetzaren txostena igorri zuten, non harreman hori egiaztatzen zen."*

*"Ebazpen horri aurre egiteko, interesdunak berraztertzeke errekurtsoa aurkeztu zuen, baina 2019ko apirilaren 8ko ebazpenaren bidez ukatua izan zen. Errekurtutako ebazpena berretsi zuen osorik, jatorritzako ebazpenaren"*

*egiaztatutako betebeharrak eta betekizunak ez zirela bete egiaztatutzat jotzen baitziren".*

Adierazitako guztiari dagokionez, erakunde honek gogora ekarri nahi du urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 35. artikuluan eskatzen dela eskubideak mugatzen dituen ebazpenen arrazoiak jaso dezala administrazioak hartutako erabakia zehazten duten zuzenbide egitateen nahiz oinarrien azalpen labur bat.

Kexa honen xede den jardun zehatzean, diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzea adierazten duen ebazpenak arrazoitzat jotzen du iruzurrezko jardun bat egon izana eta bizikidetzaren unitatea zehaztu ezin ahal izana (zenbait txostenetan adierazi da hori), baina haien edukia jaso gabe eta kopiarik eman gabe ere. Alde horretatik, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 88.6 artikuluan jasotako edukia gogorarazi behar da: *"Txosten edo irizpenak onartzeak ebazpena arrazoitzeko balioko du haren testuari gehitzen zaizkionean."*

Igorpen hutsagatiko arrazoiketa ez da nahikoa inklusio ekonomikoko eta gizarteratzeko premia oinarritzkoenak betetzeko prestazio bati lotutako administrazio prozedura batean. Arrazoi erreferentzial bat ez zen nahikoa izango administrazioko egintza 39/2015 Legearen 35.1.a) artikuluan adierazitakoarekin bat denean, hau da, eskubide subjektiboak mugatzen dituztenak.

2. Normalean, bizikidetzaren unitatearen osaera zalantzan jartzen duen zantzuren bat dagoenean, Lanbidek Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailari bizikidetzaren egiaztatzeko polizia-txosten bat egiteko eskatu izan dio, ebazpen honen xede den kexa-espeditentean, adibidez. Eta hori gertatzen da txosten eskaerak urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa), 79. eta 80. artikuluetan ezarrita daudelako<sup>1</sup>.

Nolanahi ere, txosten horren edukia baloratu behar da urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 77.5 artikuluan horretan agindutakoaren arabera, eta prozeduraren hasieratik kexagileak aurkeztutako espeditenteko gainerako dokumentu eta frogekin haztatu behar dira; izan ere, arauak honako hau dio: *"Egitateen frogatzat hartuko dira, kontrakoa egiaztatzen ez bada, agintari-kondizioa aitortzen zaien"*

---

<sup>1</sup> **79. artikulua. Txostenak eskatzea.**

1-. Prozedura ebazteko, lege-xedapenen arabera nahitaezko diren txostenak eskatuko dira, eta ebazteko beharrezko irizitakoak, nahitaezkozat zer manuk jotzen dituen adieraziz edo, eskatu behar badira, eskatzea zergatik komeni den arrazoituz.

2-. Txostena eskatzean, zehaztu behar da zer alderdi aztertu behar den edo diren.

**80. artikulua. Txostenak egitea.**

1-. Txostenak aukerakoak dira, eta ez lotesleak, espresuki kontrakoa xedatzen ez bada.



*funtzionarioek formalizaturik dauden eta, dagozkien legezko eta betekizunak gorderik, haiek egiaztatutako egitateak jasotzen dituzten dokumentuak”.*

lido horretan eta polizia-txosten bati eman behar zaion balioari dagokionez, hemen dugunaren antzeko kasuetan, Arartekoak gogoeta hauek helarazten ditu, eta haietan, besteak beste, agiri honetan esandakoa errepikatzen dute: *Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017. “Bizikidetzaren unitatearen osaeraren egiaztapenari”* buruzko 5.1.3. apartatuan, polizia-txostenei eta ezkontzaren edo antzeko harremanei dagokienez (49. orrialdea eta hurrengoak) Arartekoak azpimarratzen du, jurisprudentiako doktrinarekin bat etorritik, zer txosten motatan bete-betean frogatuko dituzten dokumentatzen den egitatea, ekintza edo gauzen egoera, dokumentu horiek sortu zireneko eguna, bai eta garapenean esku hartzen duten pertsonak ere. Halaber, adierazi zen bete-beteko frogaren ez dela zabaltzen esleitzen diren interpretazio, balio-iritzi edo iritzietara.

Arartekoaren 2017ko diagnostiko-txosten horretan jurisprudentzia zabala aipatzen zen, eta horrek zalantzan jartzen zuen txosten horiek *per se* duten frogabalioren nahikotasuna. Beraz, kontrako beste frogak batzuk aurkezteko aukera legoke.

Ez dirudi orain egokia denik han adierazitako jurisprudentzia guztia hemen errepikatzea; alabaina, adierazi nahi dut, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1. ataleko abenduaren 28ko 991/2012 Epaia (Justizia Auzitegi Nagusiarena) honako hau ondorioztatzen zuela, beste alderdi batzuen artean: polizia-txostenak *“hizpide dugun egitatearen zantzuen bidezko frogaren baino ez direla”*<sup>2</sup>.

Arartekoak, erabaki judizial horiekin bat etorritik eta askotariko ebazpenak aztertu ondoren, lehen aipatutako 2017ko diagnostiko-txostenean gomendio hau igortzen zuen (22. zk.): *“Bizikidetzaren unitatearen osaera egiaztatze baliagarriak diren txostenen edukien proportziozko judizioa egitea; egitateari balio ematea eta kasu bakoitzean barne hartutako interpretazio, balio-judizio eta iritzien balioa haztatzea”.*

Laburbilduz eta erakunde honen aburuz, diru-sarrerak bermatzeko errentaren edota etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular den pertsona baten bizikidetzaren unitateko osaerari buruzko frogaren, edo kexagilearen hurbileko beste pertsona batzuekin izan dezakeen harremanaren izaerari buruzkoa, zer-nolako garrantzi berezia duen aintzat hartuta (izaera sozialeko prestazio ekonomikoak mantentzeari eragin diezaieketen betekizun nahiz betebeharrak direlako), babestuta egon beharko

---

<sup>2</sup> Ikusi Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren 991/2012 Epaia, abenduaren 28koa (Administrazioarekiko Auzien Sala, 1. Atala)



litzateke kasu zehatz bakoitzean eta sortutako txostenean bideratutako prozeduran zehazki jasotako edukiaren egiaztatze-jardunetan, kasu honetan gertatzen ez dena.

Aurkeztutako aukerako berraztertze errekurtsoaren ebazpenaren ondoren entregatutako polizia-txostenean bizilagun baten testigantza baino ez da jasotzen. Etxebizitzan hiru pertsona bizi direla adierazten da bertan. Erakunde honen ustez, testigantza horren edukitik ezkontzaren edo antzeko harreman bat osatzen dutela ondorioztatzea ez da nahikoa oinarri.

Arartekoaren aburuz, polizia-txostenak ez ditu jasotzen eragileek zuzenean egiaztatutako egitate eta datuak; hortaz, haren edukia "ez da bete-beteko froga" urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 77.5 artikulua horretan agintzen den moduan. Gainera, testigantza eman duen pertsona zein den ez jakitean, ez da kontraesan-prozedura garbi bat egin prozeduraren hasieratik pertsona ukituaren babes eskubidea berme guztiekin egikaritu ahal izateko.

Polizia-txosten jakin batzuen froga-balio ezari lotuta emandako iritzian oinarrituz, uztailaren 8ko Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 418/2013 Epaia aipatzen da (administrazioarekiko auzien sala, 1. atala); horren bidez, auzitegiak honako hau adierazi zuen: *"la consecuencia es que si, en ocasiones, esas informaciones policiales pueden constituir instrumentos útiles para fundar una investigación más contrastada, (propia de las actuaciones cautelares), no pueden erigirse en soporte exclusivo de una medida definitiva de denegación (o extinción del derecho) si a esa falta de precisión se une el potencial indiciario de signo contrario que cabe asimismo atribuir a la concurrencia de actuaciones, incluso públicas, que atestiguarían la ruptura convivencial..."*

3. Bestalde, aipatu den moduan, kexagileak askoz geroago izan du polizia-txostenaren edukiaren berri. Horren ondorioz, ezin izan du defentsarako bere eskubidea guztiz egikaritu. Arartekoaren ustez, eskubide subjektibo bat polizia-txosten batean oinarrituz ukatzeko, eteteko edo iraungitzeko, oro har, kontraesan-prozedura bat abiarazi beharko zen, eta bertan, pertsona ukituak polizia-txostenaren edukiaren berri izango du alde aurretik, xede honekin: bere defentsarako egokiak ikusten dituen frogabideak proposatzea edo eranstea.

Arartekoaren ustez, funtsezkoa da kexagileak alde aurretik bere interesei eragindako erabakien oinarri izaten ari diren polizia-txostenen edukia alde aurretik jakitea, adibidez, prestazio ekonomikoak ukatzea, etetea edo iraungitzea (prestazio horiek adingabe bat ardurapean duen bizikidetzaren unitate baten oinarritzko beharrak betetzen dituzte). Gogora ekarri behar da kexagileak berriaz eta idatziz eskatu zuela Lanbidek prozeduran zehar iraungitzeko erabakiaren arrazoiketan aipatutako txostenen kopia emateko, baina eskaera horri ez ziotela jaramonik egin.





4. Lanbidek igorritako erantzuna aztertu behar da orain, Arartekoari bidalitako txostenean. Bertan, Lanbidek ez du justifikatu zertan oinarritu den kexagileak (...) pertsonarekin ezkontzaren edo antzeko harremana duela eta hura ezkutatu egin dela egiaztatzeko oinarri gisa erabili duen froga.

Lanbidek dio "askotariko informazioa zutela", baina ez du zehaztu nondik zetorren informazio hori, eta honako hau erantsi du: *"Udalerrian publikoa eta bistakoa da harreman hori, interesdunek hori jakinarazten baitute. Horrez gainera, (...) andreak egindako bidegabeko kobratzeei buruz ere hitz egiten dute". Egitate nabarmentzat jotzen da frogarik behar ez duena, nabaria edo publikoki ezaguna izateagatik. Eskubide subjektibo bat iraugitzeak ez du esan nahi froga salbuestetik dagoenik. Espedientean jasotzen den adierazpen bakarra, hain zuzen, bikote harremana osatzen ez dutela dioena da. Arartekoak berriz ere nabarmendu behar du garrantzi handi duela Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan bermatutako errugabetasun presuntzioaren oinarritzko eskubidea errespetatzea.*

Beraz, orain arte azaldutakoa aintzat hartuta, Arartekoak defendatzen du, hizpide dugun kasuan, Lanbidek ez duela egiaztatu eskubide subjektibo baten iraugitzea oinarritzeko ezkontzaren edo antzeko harremana duenik kexagileak, kontuan hartuz, gainera, polizia-txostenaren edukiaren edo aipatutako beste batzuen edukiaren berri ez izatean, edo haien iturriena, horren ondorioz, hasiera batetik, defentsarako eskubidea gauzatzea eragozten ari dela. Horregatik, uste du kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea iraugitzeko erabakia ez dela zuzenbidearen araberakoa izan.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

## GOMENDIOA

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraugitzeko ebazpena berrikusteko gomendatzen du Arartekoak, horretarako oinarri izan den polizia-txostena aldeztatik ez emateagatik eta, beraz, kexagileak bere burua defendatzeko duen eskubidea ez bermatzeagatik.

Halaber, oro har, bizikidetzaren unitatearen osaerari buruzko polizia-txostenaren kopia igortzea gomendatzen da, eta hura eskuratzeko aukera ukatzen bada, horretarako zer arrazoi dauden azal daitezela baina, kasu honetan, txostenaren edukiak iraugitzeko erabakia babesteko ez du balioko.